

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 11koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Zuzendariarena; haren bidez, UPV/EHU*n* ikerketarako unibertsitate-institutuak sortzeko/atxikitze eskaerak ebaluatze protokoloa (Unibasqeko Aholku Batzordeak 2019ko urtarrilaren 10ean onartua) ematen da argitarara.

UPV/EHU-N IKERKETARAKO UNIBERTSITATE-INSTITUTUAK SORTZEKO/ATXIKITZEKO ESKAERAK EBALUATZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA:

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA	1
2. XEDEA ETA NORAINOKOA	2
3. EBALUATZEKO PROZEDURA	3
3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea.....	3
3.2. Unibasqek txostena egitea.....	3
3.3. Ebaluazio-irizpideak	4
3.4. Irizpideen balioespena.....	6

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak 7. artikuluan ezartzen duenez, unibertsitate publikoak osatuta egongo dira Eskolez, Fakultatez, Departamentuez, Ikerketarako Unibertsitate Institutuez eta beren eginkizunak betetzeko behar dituzten gainerako zentro edo egitura guztiez.

10. artikulua arabera, Ikerketarako Unibertsitate Institutuak ikerketa zientifiko eta teknikorako edo sorkuntza artistikorako zentroak dira, Estatuetan aurreikusitako prozeduren arabera doktoregoko eta graduondoko programak antolatu eta gara ditzaketenak, eta, beren eskumenen esparruan, aholkularitza teknikoa emateko aukera dutenak. Lege horren, Estatutuen, bidezko bada, sortze- edo atxikitze-hitzarmenaren eta beren arauen arabera arautuko dira, eta unibertsitate batez edo gehiagoz osatuta egon daitezke, edo beste erakunde publiko edo pribatuekin batera, hitzarmenaren edo bestelako lankidetzaren bitartez, Estatutuekin bat etorritik.

Ikerketarako Unibertsitate Institutuak sortu eta bertan behera uzteko, Lege horren 8. artikuluko 2. atalean ezarritakoa beteko da, eta, horrek xedatzen duenez, arau horiek ezartzeko eskumena autonomia-erkidegari dagokio, bere ekimenez, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarekin adostuta, zein unibertsitatearen ekimenez, Gobernu Kontseiluaren proposamenaren bitartez, kasu batean zein bestean Gizarte Kontseiluaren alde aurreko aldeko txostena beharko delarik. Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiari emango zaio aurreko atalean adierazitakoaren berri.

Gainera, 10. artikuluko 4. atalak ezartzen duenez, ikerketarako erakunde edo zentro publiko edo pribatuek aukera izango dute unibertsitate publikoetara atxikitze ikerketarako unibertsitate-institutu gisa. Atxikimendua —edo,

bidezko bada, atxikimendua kentzea— onartzea autonomia-erkidegoari dagokio, bere ekimenez, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarekin adostuta eta Gizarte Kontseiluaren aldez aurreko aldeko txostenarekin, edo Unibertsitatearen ekimenez, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraikiz, Gizarte Kontseiluaren aldez aurreko aldeko txostenarekin. Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiari emango zaio aurreko paragrafoan adierazitakoaren berri.

26. artikuluan ezartzen denez, Ikerketarako Unibertsitate Institutuetako Zuzendariak haien ordezkariak izango dira, eta haien zuzendaritza eta kudeaketa arrunteko eginkizunak beteko dituzte. Doktoreen artean izendatuko dituzte, Estatutuetan ezarritakoaren arabera. Unibertsitate publikoetara atxikitako Ikerketarako Unibertsitate Institutuetarako, atxikitze-hitzarmenean ezarritakoa beteko da. Unibertsitate pribatuei dagokienez, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 12. artikuluan zehaztutakoa beteko da.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 70. artikulua ezartzen duenez, Gizarte Kontseiluaren eginkizuna da Eusko Jaurlaritzako unibertsitateen eskumeneko sailari fakultate, goi-mailako eskola tekniko, unibertsitate-eskola eta unibertsitate-institutuak sortu eta bertan behera utzi ditzala proposatzea. Eta, lege-testu beraren 62.2.c artikulua ezartzen duenez, azken batean unibertsitateen eskumeneko sailari dagokio “fakultateak, goi-mailako eskola tekniko eta politeknikoak, unibertsitate-eskolak, unibertsitate-eskola politeknikoak, ikerketarako unibertsitate-institutuak edo bertaratu gabeko modalitatean irakaskuntzak antolatzen dituzten bestelako zentro edo egiturak sortzea, aldatzea eta bertan behera uztea”. Baimen hori egiteko prozeduran, legeak ez du Unibasqen parte-hartzea aurreikusten, baina oro har, 80. artikuluan ezartzen du Unibasqen helburuaren eta eginkizunen artean daudela unibertsitate, goi-mailako irakaskuntza-zentro eta ikerketarako unibertsitate-institutuetako jardueren, programen, unibertsitate-zerbitzuen eta kudeaketaren kalitatea ebaluatzea, akreditatzea eta ziurtatzea.

Gauzak horrela, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2012ko uztailaren 19an onartutako UPV/EHUko Ikerketarako Unibertsitate Institutuen Esparru Erregelamenduaren 6.3.b artikulua ezartzen duenez, Unibertsitate Institutu propioak sortzeko proposamena onartzeko, ekimenak kalitate bikaina duela akreditatu behar da, kanpo-ebaluazio bat eginez. Horretarako, UPV/EHUK eta Unibasqek hitzarmen bat sinatu dute Unibasqek ebaluazio horren ardura har dezan.

2. XEDEA ETA NORAINOKOA

Unibasqek Ikerketarako Institutu bat sortzeko proposamena ebaluatzeko ardura har dezan UPV/EHU, eta Unibasqek sinatutako hitzarmenaren esparruan onartzen da protokolo hau.

3. EBALUATZEKO PROZEDURA

3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea

Ikerketarako Unibertsitate Institutuak sortzeko edo atxikitzeko aldez aurreko ebaluazio-eskaerak Unibasqen aurkeztuko dira, eta, eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- ✓ UPV/EHUren eskaera, non, bidezko bada, Institutuaren eraketan inplikaturako erakundeen (beste unibertsitate batzuk, CSIC, bestelako erakunde publiko edo pribatuak) eta haien lege-ordezkarien zerrenda bilduko den.
- ✓ Sortzeari edo atxikitzeari buruzko memoria, non, protokolo honen 3.3 atalean zehaztuta egonik, UPV/EHU Ikerketarako Unibertsitate Institutuen Esparru Erregelamenduan bildutako irizpideak bilduko diren. Memoriarekin batera, komenigarritzat jotzen den dokumentazio osagarria aurkeztuko da.
- ✓ Institutu-proposamenaren ikertzaileen curriculum vitae-ak. (I ERANSKINA).
- ✓ Zentro bat unibertsitate publiko batera ikerketarako unibertsitate-institutu gisa atxiki behar den kasurako, dagokion atxikitze-hitzarmena aurkeztu beharko da.

Ebaluazio-txostena eman dezala eskatuz Agentziaren Zuzendaritzari igorritako idazkiarekin batera aurkeztuko da eskaera.

3.2. Unibasqek Txostena egitea

Unibasqek txosten bat egingo du Protokolo honetan zehaztutako irizpideei jarraikiz.

Unibasqek xede horretarako izendatutako panel zientifiko batek bere gain hartuko du Ikerketarako Unibertsitate Institutu bat sortzeko edo atxikitzeko eskaera ebaluatzeko ardura. Ebaluatzaileen jardunek Unibasqek bere Etika eta Eskubide Kodean eta dokumentu honek biltzen dituen barne-prozedurako arauetan ezarritako argibideei jarraituko diete.

Arrazoitutako txosten-proposamena egingo da, balioespena barne: bikaina, ona, zalantzakoa edo eskasa. Azken hiru kasuetan, balioespen bikaina lortzeko alegazio-eparean barruan nahitaez aldatu beharreko alderdiak adierazi ahal izango dira. Txosten-proposamen hori Unibertsitatera bidaliko da, 20 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Epea amaitu eta, hala badagokio, alegazioak balioetsi ondoren, Unibasqek behin betiko ebaluazio-txostena egingo du (bikaina, ona, zalantzakoa edo eskasa), eta Unibertsitate eskatzaileari igorriko dio. Ona edo zalantzakoa bada, hobetzeko gomendioak bildu beharko dira.

Txostena gehienez ere 6 hilabeteko epean egingo da, ebaluazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren sarrera-datatik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera ezetsitatz hartuko da.

3.3. Ebaluazio-irizpideak

Proposamenen ebaluazioa egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A. ESTRATEGIA: HELBURUAK, PREMIA ZIENTIFIKOA ETA GARRANTZI SOZIALA.

Estandarrak:

- ✓ Institutu-proposamenaren jarduera-esparrua garrantzitsua eta egokia da, eta interes zientifiko-artistikoa dauka.
- ✓ Maila kualitatibo eta kuantitatiboan itxarondako helburu eta emaitzak zehaztea.
- ✓ Helburu eta emaitzak ingurunean dauden egituren bitartez (Departamentuak, Institutuak, Ikerketa Taldeak, etab.) lortzea ezinezko egiten duten arrazoien motibazioa.
- ✓ Institutu-proposamenaren eginkizunaren, ikuspegiaren, ikerketa-lerroen, helburuen, egituraren eta beste hainbaten definizioaren arteko koherentzia.
- ✓ Institutu-proposamena estrategikoki garrantzitsua da Institutuari lotutako erakunde eta taldeentzat eta haren babesleentzat.
- ✓ Institutu-proposamena estrategikoki garrantzitsua da Autonomia Erkidegoarentzat.
- ✓ Institutu-proposamenak interes soziala eta/edo ekonomikoa dauka.
- ✓ Institutu-proposamenak eragin sinergikoak sortzen ditu bere ingurunean.
- ✓ Institutu-proposamenak diziplina arteko ikuspegiari jarraikiz lan egitea hartzen du aintzat. Xede horietarako, unibertsitateko gutxienez bi bikaintasun-talde erantsi beharko lirateke, gutxienez hiru jakintza-arlo bilduko dituztenak.
- ✓ Institutu-proposamenak kanpo-harremanak hartzen ditu aintzat, haren jarduerak garatzeko eta haren helburuak lortzeko lagungarri diren edo lagungarri izan daitezkeen erakunde, enpresa, sare eta taldeekiko.

B. GARATU BEHARREKO IKERKETA-LERROAK ETA IRAKASKUNTZA-JARDUERAK

Estandarrak:

- ✓ Aldez aurretik, ikerketa-maila akreditatua duten talde zientifikoak prest edukitzea.
- ✓ Institutu-proposamena osatzen duten pertsonen esperientzia egiaztatua dute Institutuaren helburu eta jardueren eremuan garatutako ikerketa-kontratuetan edo ikerketa-proiektu lehiakorretan.
- ✓ Institutu-proposamenaren ikertzaileak harremanetan daude beste ikerketa-zentro batzuekin, eta batzorde zientifikoetan parte hartzen dute.
- ✓ Institutu-proposamenak haren helburu eta ikerketa-lerroekin bat datozen prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak egiten ditu edo egiteko prest dago, eta haien garapena errazteko plan bideragarriak ditu.
- ✓ Institutu-proposamenak jakintza eta teknologia transferitzeko jarduerak edo jarduera asistentzialak egiten ditu edo egiteko prest dago, bere jardueren artean, eta haien garapena errazteko plan bideragarriak ditu.

C. BEHAR DIREN GIZA BALIABIDE ETA BALIABIDE MATERIALEN EBALUAZIO EKONOMIKOA, DIRU-SARREREN ETA FUNTZIONAMENDU-GASTUEN ESTIMAZIOA.

Estandarrak:

- ✓ Institutu-proposamenak Institutuaren eginkizun eta helburuak garatzeko behar adina dependentzia propio dauzka.
- ✓ Institutu-proposamenak bere eginkizun eta helburuak garatzeko behar diren azpiegituretan eta ekipamenduan sartzeko aukera eskaintzen du.
- ✓ Institutu-proposamenaren dependentziek, azpiegiturek eta abarrek segurtasun-baldintzak betetzen dituzte.
- ✓ Institutu-proposamenaren aurrekontua koherentea da, eta haren premietara egokitzen da.
- ✓ Institutu-proposamenak kanpo-baliabideak lortzeko gaitasuna baduela —eta, beraz, haren jarduera- eta helburu-programa ongi garatzeko aukera baduela— frogatzen du. Baliabide ekonomikoak diru-laguntza arruntetik kanpo daude, erakunde publiko edo pribatuekin sinatutako ikerketa-proiektu edo -kontratuen bitartez.
- ✓ Institutu-proposamena bideragarria eta autojasagarria da, ikuspegi ekonomiko eta finantzario batetik begiratuta.

D. IKERKETARAKO UNIBERTSITATE-INSTYTUAREN PROPOSAMENAREN IRAKASLE ETA/EDO IKERTZAILEAK

Estandarrak:

- ✓ Ikertzaileek argi eta garbi ikerketarako profila daukate, Institutu-proposamenaren ikerketa-lerroekin bat etorritik.
- ✓ Ikertzaileek jarduera esanguratsua egiten dute Institutu-proposamenaren barruan.
- ✓ Institutu-proposamenak talde orekatu eta konpentsatua dauka, ikertzaile eta teknikarien artean, ikertzaile seniorren eta prestakuntza-fasean dauden ikertzaileen artean, etab.
- ✓ Institutu-proposamenak teknikari eta administrari laguntzaileak dauzka, bere jarduerak garatu ahal izateko.
- ✓ Institutu-proposamena ez da ikertzaile-metaketa soilak; aitzitik, Institutuko kideen artean elkarrekiko laguntza erregularra izaten da aldez aurretik, kalitatezko hainbat ikerketa-proiektu eta/edo I+Gko kontratuk, argitalpenek eta beste hainbatek erakusten dutenez.
- ✓ Ikertzaileek kalitatezko ikerketa-jarduna erakutsi dute azken bost urteetan.
- ✓ Institutu-proposamenaren kideen ikerketa-eraketzei kalitatea aitortu zaie haren helburu eta jardueren eremuan.
- ✓ Institutu-proposamenaren aldez aurreko lan- eta jarduera-aurrekariak haren jarraipena edo martxan jartze egokia bermatzen dute.

E. IKERKETARAKO UNIBERTSITATE-INSTYTUTUAREN BEHIN-BEHINEKO ERREGELAMENDUA

Estandarrak:

- ✓ Institutu-proposamenaren organigrama eta antolamendu-egitura bat datoz haren tamainarekin eta garatzen dituen jardurekin.
- ✓ Institutu-proposamenaren Estatutu eta erregelamenduek esparru egokia bermatzen dute haren kudeaketarako, behar den barne-koordinaziorako eta funtzionamendu egoki baterako.
- ✓ Institutu-proposamenaren sistemak bere kudeaketa zuzena ziurtatzen du, baita bere gain hartzen dituen proiektu edo kontratuen kudeaketa zuzena ere (esaterako, jardueren jarraipenari, fase eta epeak betetzeari, txosten edo memoriak egiteari eta kudeaketa ekonomikoari dagokienez, etab.).
- ✓ Institutu-proposamenaren sistemak bere ikerketa-taldeko koordinazioa ziurtatzen du.
- ✓ Institutu-proposamenaren mekanismoek aukera ematen dute I+G+b-aren alorreko lege-xedapenak, hitzarmenak eta akordio nazional eta nazioartekoak edota ingurumen-inpaktuari, izaera pertsonaleko datuen babesari eta beste hainbati buruzko indarreko legeria betetzen direla egiaztatzeko.

3.4. Irizpideen balioespena

Aldez aurretik aipatutako balioespen-irizpideak honako bost maila hauek aintzat hartuta balioetsiko dira, bidezko bada:

- ✓ BIKAINA. Irizpideari dagozkion estandarrak guztiz lortu dira, eta, gainera, oinarrizko eskakizunak gainditzen dituen adibidetzat har daiteke.
- ✓ ONA. Irizpideari dagozkion estandarrak guztiz lortu dira.
- ✓ ZALANTZAZKOA. Estandarra gutxieneko mailan lortu da, baina hobetu beharreko alderdiak detektatu dira.
- ✓ ESKASA. Irizpideari dagozkion estandarrek ez dute eskatutako gutxieneko maila lortu.
- ✓ INFORMAZIORIK EZ: Dagozkion estandarrak betetzeari buruzko informaziorik ez dago, edo informazio hori desegokia da.

Ebaluazioa bikaina izan dadin “bikaina” kalifikazioa gutxienez hiru irizpidetan lortu behar da eta “ona” kalifikazioa gainerakoetan, hurrenez hurren.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 11

Eva Ferreira García
Unibasqeko Zuzendaria



San Prudencio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz
Tfno.: (+34) 945 123 356